

# ZIPI ETA ZAPE ETA KAPITAINAREN IRLA

*Zipi eta Zape* pelikula gehiago egin dituzte, eta fama asko lortu dute. Duela urte pare bat, beste pelikula bat atera zuten, “Zipi eta Zape eta kanikarean kluba” deitutakoa. Pelikulen gorputza edo espiritua berdina da; bestalde, abentura desberdinak bizi dituzte.

Negua Gabonik gabe pasa ondoren, familia ez dago oso elkartuta. Aitaren liburua argitaratzeko, irla bateko gizon batekin geratzen da. Irlara bidaiatu ondoren, gaua egin eta baso erdian galtzen dira. Eta hango umezurtz-etxean lo egitea erabakitzen dute. Gaua pasa ondoren, gizajoak haien gurasoen bila doazenean, haien logela hutsik dagoela ikusten dute. Pam andreak, gurasoek alde batera utzi dituztela esaten die; baina bahitu egiten ditu. Abenturak bizi ondoren, Pam-en bertsioa zalantzan utzi eta ikertzen hasten dira.

Nire ustetan pelikula hau umeentzat egokituta dago. Nahiz eta jarri adin guztietarako egokituta dagoela, umea zarenean emozio gehiagorekin bizi duzu. Genero asko lantzen ditu film berean: abentura da nagusia, baina, bertan komedia eta drama tarteak ere ikusten dira, emozio gehiago emateko.

Bi umeek garrantzi erraldoia dute filman. Lan garrantzitsua egiten dute, eta oso barneratuta dute haien papera. Gainera sentimenduak oso ondo adierazten dituzte. Bigarren pertsonaiak ere lan ona egiten du; gainera, transformazioak ezin hobekak dira.

Bukatzeko gure ustetan trailer honek ez du **intriga** asko eskaintzen.

## **THE FOURTH PHASE**

2016ko irailaren 23an The Fourth Phase pelikula ikustera joan ginen. Arratsaldeko 20:00etan topoa hartu eta Amarara abiatu ginen. Iritsi bezain pronto "Belodromora" joan ginen. Han Red Bull-eko furgoneta bat zegoen musikarekin, DJ batekin, etab. Sarrera ateko



neskari eman genion eta lekua hartzera joan ginen. Pelikula ikusi baino lehen Mark Landvik, Erik Jackson, Pal moore aktoreak eta zuzendariak atera ziren. Aktore eta zuzendariak txarla bat eman zuten: beraien esperientzia ona izan zela, denbora asko behar izan zutela pelikula egiteko eta pelikula hori aprobetxatzeko.

Protagonistaren asmoa snowboard egiteko lau leku urtetan bisitatzea da. Bakarrik joan nahi ez zuelako, bere lagunei deitzen die. Lagunei erokeria bat iruditu zitzaion, baina baietz esan zuten. Lehenengo urtean Wyoming-era joan nahi zuten; bigarreanean Japonera; hirugarren urtean Errusiara eta, azkenik, Japonera. Esan bezala leku haietara joan ziren. Japonera joaterakoan, ordea, ezin izan zuten herrialde horretara sartu; horregatik, laugarren urtean Japoniera joan ziren.

# SAUSAGE PARTY

**Zuzendaria:** Greg Tiernan, Conrad Vernon

**Gidoia:** Kyle Hunter, Ariel Shaffir, Seth Rogen, Evan Goldberg

## ZINE KRITIKA

Greg Tiernan zuzendariak, pelikula berri bat atera du Sausage party izenekoa. Pelikularen asmoa gure ustez, pertsoneri mezu bat transmititzea da. Mezu horrek esan nahi duena, jaten ditugun elikagaiek bizia dutela da.

Pelikula honetako protagonista saltxitxa bat da eta bigarren protagonista haren neska-laguna da, eta hura, opiltxo bat da. Bi protagonistek "más alla" deitzen duten beste leku batera joan nahi dute. Baina bidean zenbait arazo gertatzen dira.

Pelikula hau, 18 urtetik gorakoentzako da, irainak eta abar azaltzen direlako. Agertzen diren sekuentziak batzuetan fuerteeegiak dira eta, beraz, ume txiki batek ezin du horrelako pelikula bat ikusi. Baina, nahiz eta pelikula handientzako izan, gu joan ginenean ume asko zeuden pelikula ikusten. Pelikula amaitzean, jendeari gustatu zitzaiola ikusten zen, denak irribarre batekin edo sekuentziaren bat kontatzen ateratzen zirelako.

Gure ustez, pelikula oso ondo egina dago, baina sekuentzia batzuetan gauza batzuk soberan daude; bestela, orokorrean, pelikula oso dibertigarria eta interesgarria iruditu zitzaigun. Gure pertsonaia gustukoenak saltxitxa eta opila izan ziren. Gutxien gustatu zitzaigun pertsonaia libragailua izan zen, beste pertsona guztiak hiltzen saiatzen zelako.

Unai Irazola eta Alaitz Alonso, Iprensa 3.maila